

Alde Zaharreko

**Herri**

**Programa**

**ehbildu**

# ehbildu

## **ALDE ZAHARRA MAITE DUGULAKO, AUZO BIZIGARRIA NAHI DUGU**

Alde Zaharra beti izan da eta izango da, Iruñeko erdigunea, hiriaren bihotza, dena bere baitan hartzen duena, eta, aldi berean, herri txiki bat bezalakoa dena. Hemen bizi garenok badakigu hori, eta halaxe maite dugu. Horretaz gain ordea, auzo hau bertan bizi garen pertsonentzat oraindik eta bizigarriagoa eta errespetuzkoagoa izan daitekeela pentsatzen dugu.

Hori dela eta, programa honetan proposatutako neurrien helburua da Alde Zaharra soilik aisialdi masifikatuko gune gisa eta ia mugarik gabe hartzeko joera hori geldiaraztea, eta haren ondorioak lehengoratzea, auzotarrak eta haien bizigarritasuna erdigunean berriro jar daitezen.

## **ETXEBIZITZA:**

Egungo etxebizitzaren gaineko espekulazio-sistemak, Alde Zaharreko etxebizitzaren erosketa eta alokairu prezio Iruñeko altuenetarikoen artean egotea eragin du, eta horrek aldi berean, pertsona askori, batez ere gazteak, oinarrizko eskubide hori eskuratzea eragozten digu. Egoera horri gainera, Alde Zaharreko berezitasunak gehitu behar zaizkio: izan ere, auzo honetako lurraldea mugatua eta babestua da, eta horrek izugarri zailtzen du etxebizitza berriak eraikitzea edo horien gainean jardutea. Horregatik, lurzati, etxebizitza-bloke eta eraikin bakoitza arretaz aztertu behar da.

Ildo horretan, **Santo Andia eta Deskalzos kaleen arteko orubean 20 etxebizitza** eraikitzea proposatzen dugu, eta **beste 8 etxebizitza Kale Nagusiko 14.** zenbakiko eraikinean; biak ere **kooperatibak eratuz eta etxebizitza kolaboratiboetarako** zuzenduak.

Bestalde, **bizilagunak birkokatzeko eraikinak birgaitzeko prozesuarekin** jarraituko dugu: hain zuzen ere, Jarauta kaleko udal-blokeak. Etxebizitza-poltsa berri hori auzoko bizilagunei ostatu emateko eta haiek utzitako etxebizitzak alokairuan ateratzeko erabiliko da.

Bestetik, **norbanakoen eraikin hutsei dagokienez (eta ditugun eskumen-mugak ikusita) bitartekotza-lan bat egitea**

# ehbildu

**proposatzen dugu**, etxebizitza-blokeak saltzeko edo alokatzeko eskura jartzea sustatzeko. Eraginkortasun energetikoari dagokionez, bai Iruñea mailan, bai Nafarroa mailan, hainbat gai proposatzen dira (adibidez, hirigune historikoetarako plan energetikoak, etab.), eta auzo mailan, **energia hartzeko eta autokontsumorako neurriak ezartzeko komunitate energetiko bat sortzea bultzatuko dugu**, eta Zezen Plazako estalkian eguzki plakak jartzea bultzatuko dugu.

Eta horretaz gain:

- "Zurekin hobe" programa jarriko dugu abian, bitartekotza publiko-komunitarioan oinarritua, gazteek zainketen truke, adinekoen etxeetan alokairua eskura dezaten.
- Etxebizitza Bulegoari izaera proaktiboa eta bitartekaritzakoa emango diogu bere eginkizunetan: hau da, auzotarren komunitateek izan ditzaketen irisgarritasun- edo birgaitze-beharrei aurrea hartuko diena.
- Hipoteken aurkako Plana eta Hipoteka Bitartekaritzako Zerbitzua aplikatzen jarraitzeko konpromisoari eusten diogu.



# ehbildu

## JARDUERA EKONOMIKOA ETA TURISMOA:

Gero eta bajera itxi eta erakusleihu huts gehiago ikusten dira kaleetan zehar: egunero, itxiko duen “betikoa den denda” berri bati buruz jakiten dugu, inork negozioarekin jarraituko ez duelako; eta, aitzitik, ostalaritza-jarduera eta turismo-ostatuena gero eta haundiagoa da. Gaur egun, lizentzia duten 222 ostalaritza-lokal daude: 59 taberna, 46 taberna-berezi, 44 kafetegi eta 14 jatetxe. Horrek dakarren bizikidetzaz- arazoa eta gehiegikeriak ikusita, 2015ean abian jarri genuen **ostalaritzako lizentziak ikuskatzeko sistema berraktibatuko** dugu, eta **lizentzia duten ostalaritzako lokalen errolda publikoa** sortuko dugu, horietako zeinetan jarduerarik egiten den edo ez jakin eta egiaztatu ahal izateko. Horrekin batera, **erregularizatu gabeko pisu turistikoak ikuskatuko** ditugu, eta pisu turistikoetarako lizentzien ematea etengo dugu, gaur egungo egoera aztertu eta esparru horretako araudi berria ikertzeko.

Hitz eman genuen bezala, **komun publikoak eraikiko ditugu, gutxienez, Kaldereria** plazan. Bestalde, LABAJERA enpresarekin batera elkarlana egitea proposatzen dugu, ekintzaileentzako merkataritza-lokalak eskuragarri jartzeko bitartekari gisa.

Era berean, **Santo Domingoko Merkatua Suspertzeko Plan** bat proposatzen dugu, dauden salmenta- postuak bultzatzeko eta postu berriak irekitzen laguntzeko.

Eta Alde Zaharrean egindako ekitaldi kopurua orekatzeko asmoz, auzoan egingo diren aisialdi ekitaldien egutegia kaltetutako eragileekin adostea proposatzen dugu.



# ehbildu

## KIROLGUNEAK:

Kirolak mugitzen gaitu, motibatzen gaitu, gure mugak gaintitzera eramaten gaitu, barre eginarazten digu, erori egiten gara eta berriro altxatu; eta, batez ere, taldeko kirolak gainerako pertsonekin lan egitearen garrantzia erakusten digu. Kirolak gure bizitzan duen garrantziaz jabetuta, **Santo Domingoko Baratzeen inguruan kiroldegi bat eraikitzea** proposatzen dugu, eta egun bertan dauden aparkalekuak 1. sektorearentzat gordetako beste eremu batetan birkokatuko ditugu.

Gainera, **Jito Alai eta Mañueta pilotalekuak konpondu eta hobetuko** ditugu, eta aire zabaleko kirol-jokorako espazio berriak sortuko ditugu ere bai. Era berean, Aranzadiko eta Aquaboxeko igerilekuetako mantentze-lanak hobetuko ditugu.



# ehbildu

## **OINEZKOAK, BIZIKLETAK ETA AUTOAK:**

Oinezkoak mugikortasun-neurrien erdigunean egon behar du, eta, nahiz eta Alde Zaharra, gehienbat, oinezkoentzako auzoa izan, oraindik hobetu beharreko kontuak badaude. Honi dagokionez, **Kaldereria kaletik osasun-zentrorako irisgarritasuna bultzatuko dugu**; ibilgailu partikularren eta banaketa-ibilgailuen sarbidea berrikusi eta ikuskatuko dugu, **Emisio Txikiko Eremurako sarbideak egokitze**; eta **eskola-ibilbide seguruak diseinatuko ditugu**, hezkuntza-komunitateekin lankidetzan. Eta noski, kaleko *adoquín* txurietako irisgarritasuna hobetzeko konponbide bat bilatuko dugu, euria egiten duen aldiro, sustoak besterik ez dizkigutelako ematen!

Bizikletei dagokienez, gutxienez **Nabarrerria Burgorako bizikletentzako beste aparkaleku** bat egokitzea proposatzen dugu.

Alde Zaharrak kotxeak aparkatzeko 590 plaza baino ez ditu 2.043 ibilgailurentzat; hau da, 4 autotatik 1ek bakarrik lortuko luke horretarako prestatutako guneetan aparkatzea. Hori dela eta, **Auzo-aparkalekuen Plana sortzea** proposatzen dugu, soilik auzokideok aparkatzeko eremu berriak eta parkinerako bestelako aukerak aztertuko dituen.

Hain zuzen ere, **Korraliloseko aparkalekua berriz ere 1. sektorerako bakarrik** izatea proposatzen dugu. Era berean, Konpania, San Frantzisko, Aduana eta Gazteluko Plaza bezalako aparkalekuen kontzesio-baldintzak eta kontzesioak berak berrikusi eta negoziatuko ditugu, horien erabilera araudiaren arabera dela ziurtatzeko, eta auzotarren eskura egon daitezkeen plaza berriak ere lortzeko.



# ehbildu

## AUZO-PLAZAK ETA HAURRENTZAKO JOLASGUNEAK.

Auzokideek kaleak eta plazak berreskuratzea nahi dugu: pertsonak eta jolasa berriro erdigunean egotea, eta ez terrazek uzten dizkiguten bazterretan. Auzoaren espazio publikoari buruzko Auzokideen Partaidetzarako Plana egitea proposatzen dugu, bertako plazen eta kaleen beharrak eta aukerak identifikatzeko, ondoren, ikuspegi bateratu batetik, espazio horiek nola hobetu eta bizigarriago nola egin adostu ahal izateko. Horri esker erabakiko da, adibidez, estalki bat eraikitzeko lekurik egokiena zein den. Modu berean Santa Ana plaza urbanizatzea (Kale Nagusirako zuzeneko pasabide bat sortuz), bere izaera komunitarioari eutsiz, lehentasunezko neurria izango da guretzat. Gainera, Piparrika Baratzearekin dagoen hitzarmenari eutsiko diogu, eta hornidura elektrikoa emango diogu berriro.

Horrekin batera, Udalak auzo-erabilerako plazak eta espazioak (San Bartolome gotorlekua, esaterako) irekitzeko aukera irekitzeko modua bilatuko dugu.



# ehbildu

## KULTURA ETA PARTE-HARTZEA:

Alde Zaharra da, zalantzarik gabe, elkarte-sare eta auzo-partaidetza handiena duen Iruñeko auzoetako bat. Horregatik, auzoko erakunde eta pertsonen topagune gisa *Plazara!* mantentzeko eta bultzatzeko konpromisoari eusten diogu, eta, horrela, sorkuntza eta programazio-gune bat indartuko da, elkarte eta komunitate sarean eragina izango duena.

## ALDE ZAHARRA HIRIAREN ERDIGUNE GISA.

Auzo mailan egindako proposamen horiez gain, Iruñea mailan honako neurri hauek nabarmendu nahi ditugu, zalantzarik gabe, Alde Zaharraren zerbitzuak eta bizigarritasuna hobetzea ekarriko dutelako. Zehazki;

- **Aparkaleku-txartelen erabilera iruzurgilearen gaineko kontrola** areagotzea, horren inguruko kontzientziazio-kanpainekin batera.
- **Terrazei buruzko Ordenantzaren berrikuspena**, herritarrentzako espazio publikoa bermatzeko, batez ere ostalaritzak eta irabazizko beste jarduera iraunkor batzuek gainezka egiten duten eremuetan, eta, behar izanez gero, ordutegiak, higie-nearekiko konpromisoak eta espazio publikoaren osasungarritasuna berrikusteko.
- **Hiriko Mapa Sonikoa** egitea, inguruneko zarata-mailak ezagutzeko. Zarata murrizteko edo saihesteko hirigintza-neurriak planifikatzea, eta kutsadura akustikoari eta horrek herritarren bizi-kalitatean dituen ondorioei buruzko hezkuntza-eta kontzientziazio-politika bultzatzea.
- **Coliving/Hiriko Laborategia kale Nagusia 59garrenean**, gizarte- eta ingurumen-berrikuntzako enpresak ikertzeko, NUPekin lankidetzan, talentu ikertzailea sustatzeko eta berreskuratzeko, hiria eta bertako jendearen bizitza hobetzeko bizileku eta lantoki bat eskainiz. AJE Enpresa Gazteen Elkartearekin (Asociación de la Juventud Empresarial) lan-eremua partekatuko du.
- **Sarasate pasealekua**. Espazio publiko hori zero kotako eredu batekin eraberritzea, herritarren jardueretarako eta tokiko merkataritzarako gaituta, betiere zuhaitzei eutsiz.



# ehbildu

- **Bizigune proiektuaren diseinua eta garapena**, Bosquecillo inguruan, bizikletaren tokiko eta turismoko erreferentzia, jarduera eta informazio puntu bat sortzeko. Gaur egungo udal-kafetegia euskarri eta elementu nagusitzat hartuta, Bizikletaren Gizarte Zentroa, Bizikleta Eskolako udal-zerbitzuaren egoitza, bizikletak tailerrerako eta auto-konponketarako gune bat eta turismo-informaziorako gune bat sortuko dira, hemen kokatuko bailirateke Euro Beloaren erreferentzia-puntua (Europako ibilbideen ziklo-sarea) zein Donejakue Bidearena.
- **Bigarren eta hirugarren hobekuntza-faseak egitea Takonera parkean**, Vistabella inguruan, Birjolastu haurrentzako jolas-gunea, kafetegi-gunea eta hitzaldietarako, estalpeko jolasetarako eta tailerretarako gela berreskuratuta.
- **Auzoetako Jai Batzordeen esku jartzea** auzoetako jaiak garatu ahal izateko behar diren azpiegiturak eta jaietako koordinatzaileentzako dirulaguntzen partidak handitzea.

